

LAUDIO UDALA

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 2an 2017ko kirol programak bideratzeko diru-laguntzen deialdia eta oinarri arautzaileak hartu zuen erabakiaren laburpena.

DLDBN (identifikatzailea):

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen, Diru-laguntzen Lege Orokorraren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>): eta Laudio Udal honen web atarian (www.laudio.eus)

Lehenengoa.- Onuradunak.

Deialdi honen bidez arautzen dira gure udalerrian 2017an norbanakoek edo kirol antolatzen dituzten elkarteek sustatutako kirol-egitasmoak.

Bigarrena.- Xedea.

Gure udalerrian 2017an kirol-egitasmoak bideratzeko diru-laguntzak ematea.

Hirugarrena.- Oinarri arautzaileak.

Laudio Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko ekainaren 2an hartutako erabakiaren bidez onartu ziren. ALHAOn 2017ko ekainaren 12 datarekin argitaratuko dira.

Laugarrena.- Zenbatekoa.

Deialdi honetarako zuzkidura 64.583 eurokoa izango da, 0600 3411 48100 partidaren kargutan.

Bosgarrena.- Eskaerak aurkezteko epea.

ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita eta hogeita hamar egun natural pasatu arte.

Laudio, 2017ko ekainaren 6a

Alkate-udalburua, JON IÑAKI URKIXO ORUETA